8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua app bat izango da, non pertsona bakoitzaren musika gustoen arabera gendea festan ateratzerakoan bere lekua errezago aurkitzeko laguntza eskainiko da.

Lehendabizi aplikazioa sortuko dugu, hau egiteko android formatua erabiltzea egokia izango litzateke. Play Developer Console erabiliz google kontu bat sortu eta gure gustoko aplikazio bat gehitu ahalko genuke. Ondoren honen gaia eta helburuak definitu beharko genituzke eta azkenik prezioa eta distribuzioa zehaztu beharko genuke.

Ondoren, Spotify eta Google maps-ekin harremanetan jarri beharko gara hauen zerbitzuak erabili beharko ditugulako eta honetarako baimena eskatu eta diru kontuak hitz egin beharko ditugu.

Gero, gure proiektuarekin hasi ahal izateko enpresari batekin hitzegin beharko degu finantziazioa lortzeko. App arekin hasteko diru sarrera bat beharrezkoa da hasiereako gastuak kubritzeko.

Behin finantziazioa lortutakoan eta app a kolgatuta daukagunean promozio bat egitea beharrezkoa izango da, gendeak gure aplikazioa ezagutu eta deskargatzeko. Hau gehien bat tabernen intereseko aplikazio bat izango da beraz promozioa haiei zuzenduko zaie gehien bat. Propaganda hori egiteko hainbat bide daude. Bat iragarkiak izango lirateke, hau da, telebistan edo erradioan edo horrelako bideen bidez promozionatzea. Eta bestea kartelak edo horrelakoak egitearen bidez.